

LAG-EN AURRERAPENAREN AURKEZPENA VITORIA-GASTEIZEN

2016/12/20

Tokia: Europa Jauregia (Gasteiz hiribidea, 85)

Iraupena: Ordu bat eta erdi

Parte-hartzaileak

| Izena | Udalerria | Elkartea/erakundea/... |
|---------------------|-----------|------------------------|
| Claudia Bohorquez | | gamaker |
| Luis Diaz | | - |
| R Ochoa de Eribe | | - |
| Jose Ochoa de Eribe | | - |
| Juan José Romero | | - |

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

| Izena | Kargua |
|--|--|
| Fernando Uriondo Ispizua | Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria |
| Jesús M ^a Erquicia Olaciregui | Lurralde Antolamendurako eta Plangintzarako Zerbitzuko burua |
| Rafael Sánchez Guerras | Arabako Lurralde Antolamenduko arduraduna |

Laguntza teknikoak

| Izena | Enpresa |
|----------------------------------|---------------------|
| Iñaki Romero Fernández de Larrea | Paisaje Transversal |
| Ana Izquierdo Lejardi | Inguru |

Aurkezpena

Parte-hartzaileei, iritsi ahala, erregistro-orria datu pertsonalekin betetzeko eskatu zaie.

Fernando Uriondo Ispizua Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendariak ekitaldiaren aurkezpen ofiziala egin du eta, oro har, parte hartzeko prozesuaren garapena azaldu du. Hala adierazi du prozesuak bi ardatz izan dituela: erakundeen parte-hartzea eta herritarren parte-hartzea. Lehen ardatzaren garapena azpimarratu du eta bidea eman dio Paisaje Transversali bigarren ardatzaren garapena azaltzeko.

Parte hartzeko prozesuaren azalpena

Paisaje Transversaleko Iñaki Romerok eta Inguruko Ana Izquierdok parte hartzeko prozesu orokorra aurkeztu dute, herritarrek parte hartzeko prozesu digitala eta presentziala nabarmenduta. Era berean, labur adierazi dute gaiaren, eremu funtzionalaren eta izaeraren araberako ekarpen kopurua.

LAG-en Berrikuspenaren Aurrerapen-dokumentuaren azalpena

Jesús M^a Erquicia Olacireguik 97ko LAGetatik bidean dauden egungo LAGetara iristeko gertatu den bilakaera deskribatu du. Jarraian, proposatutako Aurrerapen-dokumentua, atalak eta nobedadeak zehatz-mehatz azaldu ditu.

Rafael Sánchez Guerrasek xehetasun handiz azaldu ditu Aurrerapenean proposatutako eduki berriak, Ingurune fisikoaren antolamenduarekin eta azpiegitura berdearekin lotuta.

Jendearen galderak eta ekarpenak

Jarraian, bertaratutako jendearekin ireki den eztabaidarako txandan egindako galderak eta ekarpenak jasotzen dira:

+ Nola berpiztu daitezke landa-ingurunea eta baserriko kultura aldi berean berrikuntza sartuta eta kontzeptuaren bakartasuna galdu gabe? Gai oso zehatzak eztabaidatu behar dira LAGen orokortasuna eta eskala alde batera utzita.

Gidalerroen Berrikuspeneko Landa-habitata atalak gai horren gaineko kezka islatzen du, maila arkitektonikoaz haratago doana eta, lurraldearen bermatzaile eta zaindaria gisa, funtsezkoa den ingurune bat mantentzeko dimentsio sozioekonomikoa duena.

+ Zer arazo ditu landa-inguruneak maila globalean?

Hirien hazkundea eta landa-ingurunekego egoiliarren galera. Landa-ingurunean oinarri soziologikoa duen egiturazko arazo bat dago: landa-ingurunean ez dago belaunaldien erreleborik, seme-alabek ez dute jarraitzen landa-

ingurunea zaintzen ez babesten, ingurunea ustiatzen. Propagandak landa-inguruneko bizitza gogorraren eta lan neketsuaren aldean hiriko bizitza idilikoa aurkezten du.

+ Zergatik funtzionatzen du gaizki landa-inguruneko herritarren parte-hartzeak? Hedapen kaskarragatik edo interes faltagatik?

Hedapen ona egiten da udaletxe guztietan eta Arabako Foru Aldundiko sail guztietan. Baina parte hartzeko prozesuak pilatu egiten dira eta, ondorioz, parte-hartzean sartuta dauden pertsonak eta eragileak apur bat gogaituta daude.

Herritarren parte-hartzea errazagoa da hain konplexuak eta zabalak ez diren gaietan, arazo zehatzetan, eskuarki udal edo auzo mailakoak. Garrantzitsuena da horrela lan egiten hastea ikuspegi pedagogiko bat hartuta, biztanleria hezteko eta kontzientziatzeko metodo berri hauei dagokienez.

Proposatzen da gazteak ikastetxe eta institutuen bitartez txertatzea.

+ Zer elkarreagin dute bizitegi-kuantifikazioak, paisaiak, ingurumenak, dentsitateak eta hirigintzaren tipologiak?

Hirigintzan mentalitatea aldatu egin da 1976ko Legearekin eta Euskal Autonomia Erkidegoak jaso zuen immigrazioaren ondorioz, auzo oso dentsoak sortu ziren, besteak beste, Bilboko Begoña auzoa. Lurzoruaren lege horrek gehienezko biztanle-dentsitatea ezarri zuen eta hain dentsitate gutxi izanagatik azkenean bizitarik ez duten auzoak sortu dira. Orain 2/2006 Legeak sortzen duen kezka da hiria eta hiri-ingurunea bermatzeko dentsitate handiagoa behar dela. Dagoeneko urbanizatuta dauden eremuetako dentsitateak gora egin behar du lurzoru berriaren okupazioa gertatu baino lehen. Eta saihestu behar da landa-lurzorua luxuzko bizitegi-lurzoru bihurtzea, hori ez baita jasangarria ez gizarte ez ingurumen mailan.

+ Zergatik ez dira berreskuratzen Vitoria-Gasteizen hutsik dauden etxebizitzak?

Vitoria-Gasteizko alde zaharrean etxebizitzak berreskuratzeko prozesu oso ona ari da garatzen azken hamarkadetan. LAGen berrikuspenak, prozesu hori barne hartzeaz gain, prozesua mantentzeko eta hobetzeko lan egiten du.